



# ORIOKOUDALA

## IRAGARKIA

2021eko otsailaren 24ko alkate-dekretu bidez, Orioko alkateak hau erabaki zuen:

1.- Honako lan-poltsa sortzeko deialdia onartzea: administraria Orioko Udalerako .

2.- Deialdi hori arautuko duten oinarriak onartzea.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Era berean, egoki iritzitako errekurtsoak jarri ahal izango dira.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio erabaki hau hartu duen organoari, hilabeteko epean, argitaratzen denetik aurrera.

Denek jakin dezaten, iragarki hau argitaratzen da.

Orio, 2021eko otsailak 24

**Alkatea**  
Anuska Esnal Oliden

## ANUNCIO

Por decreto de alcaldía de fecha 24 de febrero, la alcaldesa de Orio resolvió:

1.- Aprobar la convocatoria para la creación de una bolsa de trabajo de administrativo/a del Ayuntamiento de Orio.

2.- Aprobar las bases que han de regir dicha convocatoria.

Contra la presente resolución podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Asimismo, podrán interponerse los recursos que se estimen oportunos.

No obstante, con carácter previo a la interposición del recurso contencioso-administrativo, podrá interponerse el recurso potestativo de reposición ante el órgano que ha adoptado esta resolución, en el plazo de un mes desde su publicación.

Lo que se hace público para general conocimiento.

Orio, a 24 de febrero de 2021

**La alcaldesa**  
Anuska Esnal Oliden



# ORIOKOUNDALA

## **LAN-POLTSA BAT ERATZEKO DEIALDIA ETA OINARRIAK: ADMINISTRARIA ORIOKO UDALERAKO**

### **1.- Deialdiaren helburua.**

Deialdi honen xedea da lan-poltsa bat eratzea, lehiaketa-sistemaren bitartez, lanpostu honetarako: administraria Orioko Udalerako.

Lehiaketa-fasea gainditzen duten izangaiek osatuko dute lan-poltsa, eta lan-poltsa horretan egoteak eskubidea emango die deituak izateko goian aipatutako lanpostuan sortzen diren aldi baterako langile-premiak betetzeko, hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren hurrenkeran. Zerrenda horretan dagoen izangairen batek, lanerako deitzen diotenean, bidezko arrazoirik gabe, kontratuari uko egiten badio, bere eskubideak galdu ditzake, eta zerrendatik kanporatu ahal izango da.

### **2.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.**

Onartua izateko eta, hala badagokio, lehiaketan parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Espainiako edo Europar Batasuneko kide diren estatuetak baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Halaber, espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako nazionalen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, eta haien ondorengoak eta ezkontideen ondorengoek zuzenbidez bananduta ez badaude, eta hogeita bat urte baino gutxiago edo adin horretatik gorako mendekoak badira.

## **CONVOCATORIA Y BASES PARA LA CREACIÓN DE UNA BOLSA DE TRABAJO DE ADMINISTRATIVO/A DEL AYUNTAMIENTO DE ORIO**

### **1.- Objeto de la convocatoria.**

Es objeto de la presente convocatoria la creación mediante concurso de una bolsa de trabajo de administrativo/a del Ayuntamiento de Orio.

Los aspirantes que superen la Fase de Concurso, formarán parte de una bolsa de trabajo que les dará derecho, en el orden de puntuación obtenido en el proceso selectivo, a ser llamados para cubrir todas las necesidades temporales de personal que surjan en el puesto de trabajo arriba citado. Si algún aspirante incluido en la citada lista renuncia sin causa justificada a ser contratado en el momento de ser llamado para ello, podrá decaer en todos sus derechos y ser eliminado de la misma.

### **2.- Condiciones de los aspirantes.**

Para que la persona sea admitida y, en su caso, tome parte el concurso, serán requisitos necesarios:

a) Tener nacionalidad española o la de cualquier otro Estado miembro de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por España, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores/as.

También podrán tomar parte el/la cónyuge de los/as españoles/as y de los nacionales de otros Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no estén separados de derecho y sus descendientes y los de su cónyuge siempre que no estén separados de derecho, y sean menores de veintinueve años o mayores de dicha edad dependientes, todo ello según lo



# ORIOKOU DALA

Hori guztia 2015eko urriaren 30eko Enplegatua-ren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 57. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretirorako adina ez gainditzea.

c) Titulazio hauetakoren bat, edo baliokidea, edukitzea edo titulu horiek eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea: batxilergoa edo bigarren mailako lanbide-heziketa. Titulua atzerrikoa baldin bada, homologatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri baten jabe izatea.

d) Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala edukitzea.

e) Diziplina-espedita bidez edozein Herri Administrazio edo Autonomia Erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzuetik bereizita ez egotea, ebazpen judicialaren arabera enplegu edo kargu publikorako ezgaitasuna erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan-legepekoen kasuan, bereziak edo ezgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

f) Euskarako 3. hizkuntza eskakizunaren edo horren baliokide baten jabe izatea. Prozesuan zehar ez da egingo hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.

Izangaiek hautapen-prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, nahiz eta baldintza horiek beste prozedura-fase batean egiaztatu behar izan.

dispuesto en el artículo 57 del Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público de 30 de octubre.

b) Tener cumplidos 16 años de edad y no exceder, en su caso, de la edad máxima de jubilación forzosa.

c) Estar en posesión o haber abonado los derechos del título de bachillerato, formación profesional de segundo grado o equivalente. En el caso de titulaciones extranjeras se deberá estar en posesión de la credencial que acredite su homologación.

d) Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas.

e) No haber sido separado/a mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso al Cuerpo o Escala de funcionario, o para ejercer funciones similares a las que desempeñaban en el caso del personal laboral, en el que hubiese sido separado/a o inhabilitado/a. En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado/a o en situación equivalente ni haber sido sometido a sanción disciplinaria, penal o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos el acceso al empleo público.

f) Estar en posesión del Perfil Lingüístico 3 o equivalente. No se realizará un examen de acreditación del perfil lingüístico durante el proceso.

Los/as aspirantes deberán reunir los requisitos exigidos para tomar parte en el proceso selectivo en la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, sin perjuicio de la fase del procedimiento en que hubieran de proceder a su acreditación.



# ORIOKOUNDALA

### 3.- Eskeraerak aurkeztea.

Eskabideak Orioko udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Herriko Plaza 1. 20810 Orío), eranskinean eransten den eredu ofizial normalduaren bitartez, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta 15 egun naturaleko epean, hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Halaber, aukera izango da postetxean ere aurkezteko, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 16.4 artikuluan zehazten duen eran.

Hau hartuko da kontuan:

a) Izangaiek deialdian parte hartzeko onarpena eskatuko dute eta bigarren atalean eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, betiere instantziak aurkezteko epe amaierako datarako. Baldintzak akreditatzeko agiri guztiak ere aurkeztu beharko dituzte.

b) Zehaztu beharko dira lehiaketa-fasean baloratzekoak diren merituak eta horiek egiaztatzen dituzten agiriak erantsi beharko dira. Eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehenagoko merezimenduak ebaluatuko dira soilik.

Egitezko okerrak atzematen badira, edozein unetan zuzendu ahal izango dira eskaerak aurkezteko epearen barruan, ofizioz edo interesatuak hala eskatuta.

### 4.- Izangaien onarpena.

Onartutako zein baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda Orioko udaletxeko iragarki-taulan eta [www.orio.eus](http://www.orio.eus) webgunean argitaratuko da. Behin-behineko zerrendan adieraziko da kanporatuak izan diren izangaiak zergatik kanporatu diren. 5 laneguneko epea emango zaie

### 3.- Presentación de instancias.

Las solicitudes se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento de Orío (Herriko Plaza. 20810 Orío), mediante el modelo oficial normalizado recogido en el Anexo, en el plazo de 15 días naturales contados a partir del siguiente al de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa del anuncio de convocatoria. Asimismo, las solicitudes podrán presentarse en las administraciones postales, tal y como dispone el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común.

Se tendrá en cuenta lo siguiente:

a) Los/las aspirantes solicitarán su admisión en la convocatoria, exponiendo que cumplen todas las condiciones recogidas en el apartado segundo en la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias, y entregaran todos los documentos acreditativos.

b) Se harán constar los méritos a valorar en la fase de concurso y se deberán adjuntar los documentos acreditativos de los mismos. Los méritos se valorarán con referencia a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Los errores de hecho que pudieran advertirse podrán subsanarse en cualquier momento dentro del plazo de presentación de instancias, de oficio o a petición de la persona interesada.

### 4.- Admisión de aspirantes.

La lista de aspirantes admitidos y excluidos será expuesta en el Tablón de anuncios del Ayuntamiento de Orío así como en la página web municipal [www.orio.eus](http://www.orio.eus) La relación provisional expresará el motivo de exclusión de cada uno de los aspirantes excluidos. Se concederá un plazo de 5 días hábiles para



# ORIOKOU DALA

erreklamazioak aurkezteko eta eskaeran egindako akatsak zuzentzeko. Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda hori behin betiko bilakatuko da automatikoki. Erreklamazioren bat aurkeztuz gero, horiek onartu edo baztertuko dira eta beste ebazpen bat emango da, behin betiko zerrenda onartzeko, goian esandako modu berean argitaratuko dena.

## 5.- Izaera pertsonaleko datuak.

Hautaketa-prozesu hau publizitate-printzipioak arautzen du, beraz, ezingo dute prozesuan parte hartu beren datuak lagatzeko prest ez daudenek. Hautaketa-prozesu honetan parte hartzen dutenek automatikoki baimena ematen diote Orioko Udalarari beren eskabideetan adierazitako datu pertsonalak erabiltzeko, eta beharrezko diren argitalpenetan argitara emateko (aldizkari ofizialetan, Udalaren iragarki-taulan eta webgunean). Horri dagokionez, aplikagarria izango da Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen bermeei buruzko, abenduaren 5eko, 3/2018 Lege Organikoak dioena. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezeztatzeko eta datuen aurka egiteko eskubideak erabil daitezke deialdia egin duen organoaren aurrean.

## 6.- Komunikazioak, jakinarazpenak eta informazioa.

Prozedura honetatik eratorritako komunikazio eta jakinarazpen guztiak Orioko Udaleko webgunean argitaratuko dira.

## 7.- Epaimahai kalifikatzailea.

a) Izendapena. Alkate-presidenteak ebazpena emango du Epaimahai Kalifikatzaileko kide titularrak eta ordezkioak izendatzeko. Izendapen horiek onartuen eta baztertuen zerrendarekin batera argitaratuko dira.

subsanan los errores y omisiones que hubieran motivado la exclusión. Las listas provisionales se entenderán automáticamente elevadas a definitivas si no se producen reclamaciones. Si las hubiere, serán aceptadas o rechazadas en una nueva resolución por la que se aprueben las listas definitivas, que se harán públicas, así mismo, en la forma indicada.

## 5.- Datos de carácter personal.

El presente proceso selectivo está regido por el principio de publicidad por lo que no se admitirá la solicitud de la persona aspirante si esta no consiente la cesión de sus datos. La participación en el proceso selectivo supone automáticamente la aceptación por parte de los aspirantes del tratamiento de sus datos de carácter personal facilitados al Ayuntamiento de Orio en su instancia así como a que se les identifique en las publicaciones preceptivas (boletines oficiales, en el tablón de anuncios y la página web). En relación a ello, deberá tenerse en cuenta la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales. Para ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición pueden dirigirse al órgano convocante.

## 6.- Comunicaciones, notificaciones e información.

Las comunicaciones y notificaciones derivadas de este procedimiento se efectuarán por medio de su publicación en la página web municipal.

## 7.- Tribunal calificador.

a) Nombramiento. La Alcaldesa-presidenta dictará resolución designando a los miembros titulares y suplentes del Tribunal Calificador. Dichos nombramientos se publicarán con la relación provisional de admitidos y excluidos.



# ORIOKOU DALA

b) Osaera. Presidente batek, idazkari batek eta bokalek osatuko dute Epaimahai Kalifikatzailea, eta horiek baloratuko dituzte merituak. Kide kopuru bakoitiak osatuko du Epaimahaia, ez hiru baino gutxiago, idazkariak gainera. Guztiak ere enplegatu publikoak izango dira, deialdi honetan parte hartzeko eskatzen den maila bereko edo goragoko titulazio akademikoarekin. Epaimahaiko kideak izendatzeko, inpartzialtasunaren eta profesionaltasunaren printzipioak errespetatu beharko dira, eta genero-parekotasuna sustatuko da. Era berean, espezialitate-printzipioa ere errespetatuko da; hau da, gutxienez kideen erdiak edukiko du deialdi honetan parte hartzeko eskatzen den ezagutza-arlo berari dagokion titulazioa.

c) Jarduna. Epaimahaiak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean jasotako xedapenen arabera jardungo du. Epaimahai Kalifikatzaileko kideek ezin izango dute esku hartu, lege horrek xedatzen dituen inguruabarrak gertatzen badira, eta hala jakinaraziko diote alkateari. Izangaiek ere epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte, lege horrek dioenarekin bat, lehen adierazitako inguruabarrak gertatzen direla irizten diotenean. Epaimahaia ezingo da eratu, eta ezingo du jardun, gutxienez, epaimahaikideen erdiak, titular nahiz ordezeko, bertan ez badira; gainera, ezinbestekoa da presidentea eta idazkaria edo haien ordezekoak bertan izatea. Epaimahaikide guztiek izango dute ahotsa eta botoa, idazkariak izan ezik; eta erabakiak bertaratutako kideen gehiengoz hartuko dira; berdinketa dagoenean, presidentek edo horren ordezekoak erabakiko du.

## 8.- Lehiaketa fasea

Epaimahaiak ondorengo merezimenduak baloratuko ditu, betiere oinarri hauetan ezarritakoarekin bat badatoz eta eskabidean

b) Composición. El Tribunal estará compuesto por un/a Presidente/a, un/a Secretario/a y los/as Vocales que han de valorar los méritos. El Tribunal estará integrado por un número impar de miembros, no inferior a tres, además del/a Secretario/a. Todos ellos serán empleados públicos con titulación académica de nivel igual o superior al exigido para tomar parte en la convocatoria. En la designación de los miembros del Tribunal deberán respetarse los principios de imparcialidad y profesionalidad y se tenderá a la paridad entre hombres y mujeres. Se respetará, asimismo, el principio de especialidad, es decir, al menos la mitad de los miembros deberá poseer una titulación correspondiente a la misma área de conocimiento que la exigida en el proceso.

c) Actuación. La actuación del Tribunal se ajustará a las disposiciones contenidas en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. Los miembros del Tribunal deberán abstenerse de intervenir, notificándolo a la Alcaldía-Presidencia, y los aspirantes podrán recusarlos, conforme a lo establecido en dicha ley. El Tribunal no podrá constituirse ni actuar sin la asistencia de, al menos, la mitad de sus miembros titulares o suplentes indistintamente, debiendo estar presentes, en todo caso, quienes ostenten la Presidencia y la Secretaría, o quienes les sustituyan por su delegación. Todos/as los/as miembros del Tribunal tendrán voz y voto, con excepción del/de la Secretario/a del mismo, y sus decisiones se adoptarán por mayoría de los votos presentes, resolviendo, en caso de empate, el voto del/de la Presidente/a.

## 8.- Fase de concurso.

El Tribunal valorará los siguientes méritos, siempre que hayan sido alegados en la instancia, de acuerdo con lo establecido en



# ORIOK OUDALA

horrela aipatu badira:

— Emandako zerbitzuak: Gehienez, 18 puntu.

Administrari funtzioak betez administrazio publikoan emandako zerbitzuak baloratuko dira: 0,10 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko (ez dira kontuan hartuko frakzio txikiagoak) eta gehienez ere 18 puntu arte. Lanaldi osoa ez den kasuan puntuazioa hainbanatu egingo da.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurreko aldiak bakarrik kontatuko dira, dedikazioaren arabera.

— Ezagutza informatikoak: Gehienez, 6 puntu.

Ezagutza informatiko hauek baloratuko dira: Windows Sistema Eragilea, aplikazio bakoitzeko bi puntu banatuz (Word, Excel eta Access). Arlo honetako ezagutza dagokion IT txartelaren bidez egiaztatuko da, era honetan baloratuta:

- Maila aurreratuko IT txartela eta Access 2010 IT txartela (maila bakarra): bi puntu goian aipatutako arlo bakoitzean.
- Oinarrizko IT txartela: puntu bat goian aipatutako arlo bakoitzean.

Lehiaketa-fasean lor daitezkeen puntuak, gehienez ere, 24 izango dira.

Epaimahaiak meritua ebaluatuko ditu eta lehiaketako behin-behineko kalifikazioak argitaratuko ditu. Argitalpen horren hurrengo egunetik aurrera, eskatzaileek 5 laneguneko epea izango dute dagozkien erreklamazioak egin eta akatsak zuzentzeko

## 9.- Epaimahaiaren proposamena.

estas Bases:

— Servicios prestados: Máximo 18 puntos.

Servicios prestados en el desempeño de funciones de administrativo en la Administración Pública: 0,10 puntos por cada mes de servicios completo (no se computarán fracciones inferiores), hasta un máximo de 18 puntos. En caso de que la dedicación no sea de jornada completa, se realizará el correspondiente prorrateo en la puntuación.

Se contabilizarán solamente los periodos anteriores a la fecha de fin del plazo de presentación de solicitudes y en proporción a su dedicación.

— Conocimientos informáticos: Máximo 6 puntos.

Se valorará el conocimiento de informática, Sistema Operativo Windows, con reparto de 2 puntos a cada aplicativo ( Word, Excel y Acces). La acreditación de este apartado se realizará mediante la presentación de las correspondientes certificaciones IT txartela, valorándose como a continuación se indica:

- IT txartela de grado avanzado e IT txartela Access 2010 (único): 2 puntos en cada una de las materias citadas.
- IT txartela de grado básico: 1 punto por cada una de las materias citadas.

La puntuación que se podrá obtener en la fase de Concurso será como máximo de 24 puntos.

El tribunal evaluará los méritos y publicará las calificaciones provisionales del concurso. A partir del día siguiente al de dicha publicación, los solicitantes dispondrán de un plazo de 5 días hábiles para interponer las reclamaciones oportunas y subsanar las deficiencias

## 9. Propuesta del Tribunal.



# ORIOKOUNDALA

Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu ondoren, epaimahaiak behin betiko zerrenda argitaratuko du. Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa prozesu osoan lortutako puntuak batuz aterako da; eta puntuen arabera ezarriko da zerrendako izangaien hurrenkera. Berdinketarik badago, irizpide hauek kontuan izanik ezarriko da hurrenkera-ordena:

1.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikulua aplikatuta, emakumeei emango zaie lehentasuna, non eta beste izangaiak sexuarengatik diskriminatzaileak ez diren eta neurria ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak dituen, hala nola, enplegua eskuratzeko arazoak dituen beste kolektibo batzuetakoa izatea.

2.- Emandako zerbitzuetan puntuazio handiena lortu duenaren alde.

3.- Oraindik ere berdinketa badago, hurrenkera-ordena zozketa bidez ezarriko da

## 10.- Gorabeherak.

Epaimahaiak eskumena du oinarri hauetan aurreikusten ez den gaietan gerta daitezkeen zalantzak argitzeko eta deialdia modu egokian burutzeko beharrezko erabakiak hartzeko.

## 11.- Inpugnazioak.

Deialdia, oinarri-arauak eta haietatik eta Epaimahaiaren jardueretatik datozen egintza administratiboak inpugnatu egin ahal izango dituzte interesdunek, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epeetan eta moduan.

Era berean, interesdunek deialdi honetatik

Terminado el plazo para formular las reclamaciones que estimen oportunas, el Tribunal publicará la lista definitiva. La calificación final de cada aspirante vendrá determinada por la suma de las puntuaciones obtenidas en el conjunto del proceso. En caso de empate, el orden de prelación se establecerá atendiendo, sucesivamente, a los siguientes criterios:

1. En aplicación del artículo 20.4.a) de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se dará prioridad a las mujeres, salvo que concurran en la otra persona candidata motivos que, no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso al empleo.

2. A favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación en los servicios prestados.

3. Si todavía persiste el empate, el orden de prelación se establecerá por sorteo.

## 10.- Incidencias.

El Tribunal queda facultado para resolver las dudas que se presenten y adoptar los acuerdos necesarios para el buen orden de la convocatoria, en todo lo no previsto en estas bases.

## 11.- Impugnaciones.

Esta convocatoria, sus bases y cuantos actos administrativos se deriven de la misma y de la actuación del Tribunal Calificador podrán ser impugnados por las personas interesadas en los casos y forma previstos por la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Asimismo las personas interesadas podrán





# ORIOKOU DALA

eratorritako administrazio-ekintzen aurka egin ahal izango dute, Administrazio Prozedura Erkidearen araudiak ezarrita daukanaren arabera.

impugnar los actos administrativos que se deriven de esta convocatoria, de acuerdo a lo establecido por la Ley de Procedimiento Administrativo Común.